

**Ez zait oraingoan lehenengo
aldiz gertatzen, eta ez
gutxiagorik ere, Eire-ko
hizkuntz arazoaz neure
iritzia laburki bederen
ematea.**

**Beste edozein euskaltzalek
bezala, nik ere behin eta
berriz irakurri dut eiretarren
kondaira tragikoa: ekono-
miaren eta politikaren
alorrean zapalkuntza
gupidagabe eta iraunkorrez
oratua, giza-sofrikario
ikaragarri izkiriatua,
hizkuntz borroka latz eta
esperantzagabez gauzatua,
nekez gerta dakiok euskal-
dun abertzaleari Eireko
gertakari ilara luzearen berri
izatean, hotz eta axolakabe
gelditzea.**

**Hauxe da nire kasoa orain
lerro hauek prestatzerakoan.
Eireren kondaira gurea baino
aisa bortitzagoa eta gogo-
rragoa izan dela ongi
jakinik ere, Euskal Herriaren
patua eta eiretar herriarena
neure barruan etengabe
kidetzean, halako zorabioak
hartzen bainau. Irakurleak
ere hartuko duen bezala.**

EIREKO HIZKUNTZ ARAZOAZ

Jose Luis Alvarez Enparantza

«The language of the conqueror in the mouth of the conquered is ever the language of the slave» (Tacitus)

GAELIKERAREN BERRESKURAPENA

Irlanda («Eire» hobe, irlandarren beren nazio-izendapena ontzat eman-
go badugu) Estatu elebiduna da ofizialki.

Areago. Gaelikera «lehenengo hizkuntza ofiziala» da (ik. 1937ko Kons-
tituzioa, 8.art.): «*The Irish language, as the national language, is the first
official language*».

Baina, ondoko lerroetan xehekiago ikusiko dugunez, ingelesa da hiz-
kuntza nagusia. Ingelesa ikastekotan, hain zuzen, makina bat atzerri-
tarrek jotzen du Eirera (euskaldun mordo batek barne!). Eguneroko
bizimoduan gaur mintzabide ia bakarria bihurtutakoa, Britainia Na-
gusiak irlan inposatutakoa da, eta ez bertako hizkera zeltikoa.

Gaelikera Eskoziako mintzairaren haurridea da, anaia bizkia; eta Ga-
lesko kimraegeraren eta Breizh (Bretainia)ko brezhonegeraren lehen-
gusua. Man uhartean, berriz, urte hauetantxe suntsitutako manxera,
eta Kernewek (Cornwall) lur-muturreko kornikera (orain dela bi men-
de desagertutakoa), multzo zeltiko berberaren adaskak dira.

CORPUSAREN NORMALKUNTZA

Gaelikerak zenbait eredu nagusi edo molde normalizatu izan du Historian barrena. «Irlandera klasiko moderno» («*ceart na bhifileadh*» deritzona) kultur tresna aberatsa izan da Eire-Alba lurraldean (Irlanda-Eskozia, alegia) 1200 eta 1600 artean.

XIX. mendean eiretar pizkunde abertzalea mamitu zenean, urrunsko gelditua zen irlandera klasikoa Mendebaldeko kostaldean mintzatuak ziren dialektoetatik. Ekialdeko Leinster eskualdean (Dublin eta «Pale» inguru zabala, oro har) suntsitua zen gaelikera; eta ingelesa zen mintzabide bakarra.

Nola-hala gaelikeraz mintzo ziren eskualdeetan (1.524.286 hiztun 1851ko Erroldan, %23), hiru dialekto nagusi erabiltzen ziren: Ulsterkoa Iparraldean, Connacht-ekoa Mendebaldean, eta Munster-koa Hegoaldean. Bakoitza, jakina, azpi-dialektotan zatitua; eta denon artean «Gaeltacht» deitzen dena osatzen zutelarik. Alegia, gaelikera bizirik atxeki duen lurraldea, «Irlanda gaelikoduna», nolazpait esateko.

Orduko hizkuntz egoeraz bizpahiru ezaugarri gailen aipatzekotan:

1) ez zegoen nagusi agertzen zen dialektorik; eta berezko koinérik ez zegoen, bestela esanda;

2) gaelikodun hiritar multzo sendorik ez zegoen: zenbait eskualdetako baserritar eta arrantzale txiroek erabiltzen zuten;

3) bide beretik, gaelikeraz mintzo zen eiretar multzo horrek (multzo ugaria, dena dela, Euskal Herrian inoiz ez den izari demografikoa) indar ekonomikorik eta politikorik ez. Britainiarrek okupazio militarren ondorioz ezarritako egoera kolonialean, ingelesdunek agintzen zuten; bertako eiretarrak ez lurrik ez aginterik gelditu baitziren.

Hiru dialekto horien artean, Cork hiria barne zeukala-ta, Munsterkoak izan zuen bere hizkera Eire osora hedatzeko aukera. Baina aukera hori ez zen mamitu; eta Eire Askatuan (1922) tinko iraun zuen dialektalismoak.

Ulsterko sei konterri gabeko «Eire Askatua» sortu bezain laister, Dublingo Gobernuak «Itzulpen Saila» sortu (1922), eta lehenengo urratsak egiten hasi zen.

Irlandera Batuaren Gramatika arau-emaileak ez zuen, halere, 1958ra arte argia ikusi («Gramadach na Gaeilge agus Litrín»); eta, zain egon horretan, 36 urte garrantzitsu, Burujabetza berriak alai zitzaketenak, galdu egin ziren.

Liburuak arrakasta handia izan zuen: liburua kalera eta segituan, 1.200 ale saldu ziren lehenengo egunean bertan! Eta behin eta berriz argitaratu zen: 1960, 1962, 1968, 1975, 1979... Harrera ez zen txarra izan.

Bateratsu bideratu zen, eta azkarkiago amaitu eta kaleratu, Gaelikera Batuaren Hiztegia (Rev. Dineen, 1927). Baina barrutien araberako ahoskera desberdinen arteko diferentziei buruzko biderik gabe agertu zen. Eta gauza bera gertatu zitzaion Rev.L.McKenna S.J.-aren Hiztegiari (English-Irish Dictionary, 1935). Are okerrago, hiru mende lehenagoko tradizio zaharkituari eutsiz, grafia gaeliko zaharraz argitara baitzen (eta ez «gure» grafia erromatarraz, alegia).

Hiztegi horien balio praktikoa, beraz, oso urriturik geratu zen; ondoko hiztegietan gertatu zen bezala.

Gerratea 1945an amaitzean, delako «Itzulpen Saila»ri bere lana burura zezan agindu zion Eamon De Valera lehen ministroak. Eta horrela ikusi zuen argia «*Standard Handbook*» izenekoak (= An Caighdeán) 1948an (bigarren argitarapena 1979koa).

AHOSKERAREN ARAZOAK

Ahoskerari buruzko hutsunea konpontzeko bidean jartzen ez zela ikusirik, eiretar hizkuntzalari batzuek (Tomás De Bhaldraithe-ren eskutik, 1961) alderdi fonologikoak ikertzeko xedea hartu zuten. Bidenabar esateko, eta irakurleak berehala somatu dukeenez, adierazgarria da hutsune hori, hizkuntzak ahoz erabiliak izateko jaió baitira. Normalkuntzak izkribu-hizkerari datxekion kutsu filologikoa hartu zuen Eiren.

Baina eskandalorik larriena Huallacháinen inguruan gertatu zen ondoko urteetan.

Hezkuntza Ministeritzako buru izendaturik (1962-XII), Aita Colmán Ó Huallacháin frantziskotarrak hartu zuen alorreko zuzendaritza; eta Gaeltachtan zentzuz eta xeheki burututako lan eskerga baten ondorioz, *Buntús Gaeilge* (= Gaelikeraren Oinarriak) ikasbidea prestatu zuen.

Besteak beste 1.500 hitzen ahoskera batua eskaini zuen.

Ondoren, Cork-eko irakasle zegoen Máirtín Ó Murchú irakaslearen laguntzaz, ikusentzunekeo materialak prestatu zituen (1967).

Dublingo Gobernuak mesfidantzaz ikusi zituen irakats-aldakuntza sakon hauek; eta Ó Huallacháin metodoak boikotatzen hasi zen.

Ministeritzarekin sortutako ikamikak moztekotan, Joshua Fishman soziolinguistika famatua gomitatu zuten Eirera (1968ko apirilean). Irakasle honek inkesta-lan zehatz eta orokor bat burutu zuen, eta sendabide gaitzak hartu behar zirela esan. Gobernuak artxibatu egin zuen Fishmanen lana.

Argitaratua izan den gutun luze batean, Fishmanek, hizkuntzaren egoeraz eta plangintza berriez, «oso ezkor» egotea aitortu zion Huallacháini (1971-II). Eta liskar hauen ondorioz, Aita Huallacháin kanporatua izan zen; eta ahozko irakaskuntzako planak oro, etenda.

Handik bi urtera (1973) ikasketen amaieran pasa behar ziren bi Gaelikera-Zertifikatuak, 1924an erabakitakoak (ICE, Intermediate mailakoa, 16 urteko ikasleentzakoak; eta LCE, Leaving mailakoa), kendu egin zituen Dublingo Gobernuak. Eta gauza bera erabaki zuen, handik hilabete batzutara, Eireko Funtzionari izateko pasa behar zen gaelikera Etsaminaz.

Lotsarik gabe, argi eta garbi adierazi zuen Eireko Gobernuak ingelesa hartzen zuela nazio-hizkuntzatzat.

Gaelikera Batuaren arau fonologiko horiek ez ziren batere zabaldu. «Gael-Linn» erakunde pribatuko irakasleek erabili izan dituzte, bai. Eta «Linguaphone» (1977) metodoak ere bai. Baina tenkaldia emana zegoen, eta goitik emana.

XIX. mendeaz geroztik, Ó Conell eskuindar ingeleszale amorratuaren bidetik markatutako bidea, ongi «lotua» zegoen.

Izkribuzko kodearen aldeko gogoa ere ez zen oso nabarmen Dublingo Gobernuan. Urte mordoia pasa ondoren ere, haurrentzako liburuak urri dira oraindik (ez ingelesezkoak, noski). Eta gaelikerak ezagutu duen nobelaririk famatuaren obra, bera hil ondoren ere, argitara gabe dago oraindik. Máirtín Ó Caddháinek ez baitzuen sekula onartu bere obra ingelesera itzultzea...

«Joshua Fishman soziolinguistika famatua gomitatu zuten Eirera (1968ko apirilean). Irakasle honek inkesta-lan zehatz eta orokor bat burutu zuen, eta sendabide gaitzak hartu behar zirela esan. Gobernuak artxibatu egin zuen Fishmanen lana»

«Dublingo Gobernuak aspaldidanik dauka erabakita gaelikerari balio sinbolikoa besterik ez aitortzea»

STATUSAREN NORMALKUNTZAZ LABURKI

Dagoeneko idatzirik daukaguna ikusita, gaelikeraren erabilpena eta funtzioak zertan dauden aisa soma daiteke.

Dublingo Gobernuak aspaldidanik dauka erabakita gaelikerari balio sinbolikoa besterik ez aitortzea: izendapenak, bilera-agurra, eta abar. Euskaldunok oso ongi ezagutu dugun joera folklorikoa.

HIZKUNTZAREN EZAGUERA MAILA

XIX. mendera arte, gaelikera izan zen Eireko mintzabide nagusia; are bakarra ere jende xehearentzat hirietatik at.

Baina 1800 inguruan (Gosetea baino lehenago ere bai, beraz) gaelikeraren egoera guztiz kezkarria zen.

Hizkuntzari buruzko galdera bat erantsiz zabaldu zen 1851ko Errola. Eta urte hartan hitzun kopuruak hauek ziren:

6.552.386 eiretar guztira
1.524.286 gaelikodun (%23,26)

Zaharren artean gaelikodunen proportzioa askoz ere handiagoa zen: %35,12. Eta gazteenen artean (0-10 urte) askoz ere txikiagoa: %12,66. Mendebaldeko Eiren zaharrek bazekiten gaelikeraz, baina familian ingelesez hitzegiten zen. Gainbeherakada hori, ikus daitekeenez, oso azkar mamitzen zen XIX. mendearen erdialdean.

Ondoko urteetan gauzak are okerrago jarri ziren. 1891ko Erroldak erakusten duenez, gazteenen artean proportzioak jaitsi egin ziren, 0-10 urtekoetan, 1851ko %12,66 hartatik (166.839 haur gaelikodun), 1891an %3,5 pasa ziren (36.785 haur gaelikodun bakarrik). Eskualde asko eta askotan garbi agertzen zen etorkizuna: 1950/1960 ingururako gaelikera, kitto. 1950an Wagner hizkuntzalariak bere Atlas burutu zuenean, leku askotan azkeneko hitzunez baliatu behar izan zuen...

Zein euskaltzalek ez du barne dardararik senditzen? Nork ez daki gurean ere horrelaxe ari garenik eskualde asko eta askotan?

Beste emaitza bat 1851ko Erroldan: Leinster lurraldean (Dublin barne duen horretan) gaelikera hilaginean zegoela jadanik. Hots, Leinster zen

Eireren motorra eta ekonomi eragile nagusia.

Gaelikodunen kopuruaren bilakaera oso argitsua da:

	Elebakarrak		Elebidunak+Elebakarrak	
1851	319.602	(%4,9)	1.524.286	(%23,3)
1861	163.275	%2,8	1.105.536	%19,1
1871	103.562	%1,9	817.875	%15,1
1881	64.167	%1,2	949.932	%18,2
1891	38.121	%0,8	680.174	%14,5
1901	20.953	%0,5	641.142	%14,4
1911	0	%0,0	582.446	%13,3
1926 (Buruji.26)			453.511	%18,3

Neurbideen aldaketak daude batetik. Baina baita Eire Estatuaren sorrera ere (1921). «Ulster»ko sei konterriak at gelditzean, elebidunen proportzioak «hobekitu» egin ziren, itxuraz; Ipar Irlanda britanikoan gaelikodunik ez baitzegoen, oro har.

Ohar garrantzitsu bat: Eirek (Eire-Hegoak, zehazkiago) Askatasuna lortu zenerako, eiretar guztiek zekiten ingelesez, eta gutxiengo batek bakarrik (%7 inguruan) gaelikeraz eta ingelesez. Ingelesa beharrezkoa zen askotan (ingeles elebatarrekin mintzatzerakoan). Gaelikoa inoiz ez.

IRAKASKUNTZAREN GORABEHERAK

Hizkuntzaren egoera horren makal egonik, Dublingo Gobernuak, bere lehenengo urteetan hizkuntzaz ere seriotan kezkatua, gaelikerazko irakaskuntza bultzatzea erabaki zuen; nahiz irakasle goan ahulezia nabarmena egon (%9 bakarrik gaelikeraz irakasteko gai).

Baina alor horretan ere gorakadak berehala iritsi zuen bere gailurra, eta orduz geroztik zifrak behera doaz: 1940an, horretara, 623 «ikastola» zeuden Eiren («*all-Irish*»); baina 1979an, 160 besterik ez zen gelditzen (ikasle goaren %3 bakarrik).

Oso joera antzekoak daude lizeoen mailan: 21 lizeo gaelikeraz (1979),

«Eirek (Eire-Hegoak, zehazkiago) Askatasuna lortu zenerako, eiretar guztiek zekiten ingelesez, eta gutxiengo batek bakarrik (%7 inguruan) gaelikeraz eta ingelesez. Ingelesa beharrezkoa zen batzutan (ingeles elebatarrekin mintzatzerakoan). Gaelikoa inoiz ez»

kopuru osoa 524 zelarik. Berriro ere: %4. Are okerrago, 21 lizeo horien artean, 14 baizik ez baitira osoki elebakarrak.

Honetan guztian **Dublinek** eragin handia duenez, ikus dezagun irakas-kuntzaren egoera Dublinen (miloi bat biztanle).

	Denagaelikeraz	Elebidunak	Guztira (Eire osoan)
1960	3 eskola	15 eskola	109 eskola
1970	3 "	8 "	150 "
1980	4 "	0 "	136 "

1973ko erabakiek beren fruitua eman dute...

BERRESKURAPENAREN LAU ARDATZAK

«*Bord na Gaeilge*» erakundeak argiro eman zituen gaelikeraren berreskurapenerako lau ardatzak (1978):

- 1/ Gaeltacht;
- 2/ Irakaskuntza;
- 3/ Estatuaren erakundeen eiretarkuntza;
- 4/ egiazko bizi-guneen sorrera.

Bigarrenez esana dugu funtsezkoena.

Bi hitz orain Gaeltachtaz.

Hasteko hau: sei eskualde direla, geografi loturarik gabeak (gehi Dublinen ondoko Meath-eko artifiziala, porrot bihurtua). Iparretik Hegoalderantz joanda: Donegal (Ulster eiretarrean), Mayo, Connacht (Galway), Kerry, Cork eta Waterford. Lur malkarretan kokatuak, txirotasunaren irudi bihurtu dira.

Gaeltacht hauen xehetasunak emanak ditu Reg Hindley-en liburuak («*The Death of the Irish Language*», Routledge 1990):

Donegal (Dún na nGall)	15.318	/	18.398 (1981)
Mayo (Maigh Eo)	884	/	1.048

Galway (Gaillimh)	1.149	/	1.322
Kerry (Ciarrai)	3.998	/	4.689
Cork (Corcaí)	1.993	/	2.425
Waterford (Port Láirge)	867	/	1.042
Meath (Mí)	120	/	165
Guztira	36.209 (elebidun) / 42.417 (biztanle)		
Eire osoari buruz:	36.209 / 3.226.467 = %1,12		

Gaeltacht horretako egoera ekonomikoa oso txarra izanik, nolazpaiteko industria eraiki da urte hauetan. Baina hizkuntzaren aldetikako baldintzak zorrotz ez jarririk, industria txiki horrek berak okerrago utzi du eskualdeetako hizkuntz egoera (21 kooperatiba zehazkiago).

Baina jendegabetzea hor zegoen, eta erremedioa jarri behar zen. Adibidez, Dingle lumuturrean (Kerry Konterrian), bost parrokia, jendeke-taren eboluzioa hau izan da:

1841.....	8.300	biztanle
1901.....	4.342	«
1961.....	2.156	«

Hona hemen definizio on bat lurralde horientzat: «*restricted, remote, impoverished*» (Ó Danachair, A view, 152). «*A familiar figure of the Gaeltacht of even thirty years ago (=1940) was the old man or woman who spoke only Irish, who had never been to school and could neither read nor write, but who could recite at will large numbers of poems and stories*» (A View, 120).

Gizarajo multzo horiek nekez sor zezaketen inolako pizkunde mogimendurik. Eta Gaeltachta hildakotzat eman behar da. Azkeneko datuen arabera hauxe da etxeetako erabilpen heina: %33,7 etxetan gaelikera hutsez mintzo, %46,1 bi hizkuntzetan, eta %20,2 etan dena ingeles hutsez (J.Harris).

Estatuak, hitz batez, ez du erruz lagundu.

Eta han-hemenka sortu diren talde isolatuek, ez dute oraingoz sare sendorik osatu (Meath-eko porrotak garrazki argitzen duenez). Inkestek erakusten dutenez, %4 izan daiteke «gaelikodun-berri» horien pisu demografikoa: 140.000 inguru.

«Ulster» britanikoan dagoen egoera ez da askoz hobea; nahiz azkeneko urteotan, Pat Rice adiskideak (Pádraig Ó Maolchraoibhe deitza hobe, gaelikeraz) xeheki ale honetantxe azaltzen digunez, zantzu es-

«Gaeltacht horretako egoera ekonomikoa oso txarra izanik, nolazpaiteko industria eraiki da urte hauetan. Baina hizkuntzaren aldetikako baldintzak zorrotz ez jarririk, industria txiki horrek berak okerrago utzi du eskualdeetako hizkuntz egoera»

«Gaeltacha hildakotzat eman behar da»

perantzagarriak agertu.

Eire Askatua sortuz geroztik, Parlamentuko mintzabidea ingelesa izan da urrundik: %98 gutxienez. Gaelikerazko egunkaria plazaratzeko asmoa ere, porrota izan da («Lá», euskaraz «eguna»...). Eskola-liburuak urri dira betidanik; eta gaelikerazko literaturak inoiz ez du produzioaren proportzio txikia gainditu (urteko hamar bat liburu gehienez).

Gaelikerazko Telebista-katerik ez dute: dauden biak ingeles hutsez ari dira («*there are not many Irish language programs available to the viewer*» irakur daiteke P. Ó Riagáin-en txostenean (IISL 70, 1988, 39.). Orain-txe, hain zuzen, Donostiako **Input** Batzarrean, Dairena ní Chinnéidek jakin erazi duenez, aurtengo udazkenean hasiko da 3.Kanala gaelikera hutsez emisioak hedatzen (bizpahiru ordu egunean, omen)...

«*English came, Irish went. If Irish is to come, English must go*» esaten zuten mende haserako abertzaleek (Ingelesa etorri zen, eta Gaelikera joan. Gaelikera etorriko bada, Ingelesak alde egin beharko du). Thomas Davisek xuxen ikusi zuen hautua.

Eiretarrek dute orain azkeneko hitza.

Bibliografia:

*Liam S.Andrews. (1978). In *The Decline of Irish as a school subject in the Republic of Ireland, 1967-1977*. . Co.Armagh.

**Tuarascáil Staitististiúil 1985-1986*. (1986). Dublin. Government Publications

*Máirtín Ó Murchú .(1985). *The Irish Language*.

*Bord na Gaeilge. (1986). *The Irish language in a Changing Society*. Dublin.

*Mouton de Gruyter. (1988). *International Journal of Sociology of Language*. 70.zb. Amsterdam.

*Micheál eta Helen Ó Murchú. (1988). *Aspects of Bilingual Education*. Bord na Gaeilge. Dublin (artikulu mordoska bat, Harris, Titone, eta Murchú barne).

*Kevin Collins-Mercier P.Ltd. (1990). *The Cultural Conquest of Ireland*. Dublin

*Reg Hindley-Routledge (1990) *The Death of the Irish Language*. London. (Baita honen erantzuna den *Buried Alive* liburuxka, Dáil uí Cha-

dhain-Dublin, 1991).

*Gabrielle Maguire. 1990. *Our own language*. Ipar Irlandako berreskurapen-saioei buruz egin den ikerlanik osoena-Multilingual Matters Ltd. Clevedon.

**Teilifis na Gaeilge: une chaîne de télévision en langue irlandaise*(in «Mercator Media Forum»)-Univ. of Wales Press. 1995.

*«*A view of the Irish language*». Ed. Brian Ó Cuív-Dublin, 1969. Zaharkitua; baina interesgarria.